

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun, eta berrogetamairugarren urteko Urrilaren ogetamarrean, Etxaide, Irigarai, Dassance, Lekuona, Gorostiaga, Villasante, Mitxelena, Mulier ta Oleaga euskaltzainak, baturik, lenengoa maipuru dala, egiten dau Euskaltzaindiak illari dagokon batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzaragiria irakurri da ta onetsia izan da.

Irigarai jaunak azaltzen dau Euskaltzaindiaren aldiroko **Euskera** len gertakizunak aurrera doazala, ta berau argitaratuteko bear dan agintarien baimena Oleagak eskatu dagiala bear dan lekuan.

Oleaga jaunak diño Bizkaiko Ekautaren Jakintza batzordearen aginduz, Euskaltzaindiaren etxea, gazbitu ta apaintzeko bear direan lanan gertakizunetan bere asita dabiltzala, Batzorde aren ordelariak.

Mitxelena jaunak, Euskal-abizenak gaitzat artuta, *Apellidos Vascos* deritzan liburu bat oraintsu argitaratu dau. Ijeki bat damotso euskaltzaindiari.

Aita Villasante jaunak bere oraintsu argitaraturiko liburutto baten ijeki bat dakar euskaltzaindiarentzat. Beronen gaia, Joanes Etxeberri euskal idazlearen bizitza ta lanen barri.

Pozik ikusi ta aztertu dira liburu bi orreek eta eskerrak agertzen jakez egileai.

Beste barik eta araudizko otoitaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

I. M.^a Etxaide

Zadorlaria

Nazario Oleaga